

DEIALDIA, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO IKASTETXEETAKO ZERBITZUBURUAREN 1 PLAZA.

IZENDAPENA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko irailaren 7an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin amaiturik Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ikastetxeetako zerbitzuburuaren 1 plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hautapen-prozesua –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko azaroaren 17an hartutako erabaki bidez onetsi zen, eta 2025eko 242. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 4koan, argitaratu zen–, eta bat etorrita hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Iruñeko Udaleko funtzionario izendatzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ikastetxeetako zerbitzuburuaren lanposturako. Plaza jarraian xedatutakoaren arabera esleituko zaio:

IZENDATUA	ESLEITUTAKO PLAZA	ARAUBIDE JURIDIKOA
Janda Garcés, Javier	1-220000-1	Funtzionarioa

2. Izendatutako izangaiak **2026ko irailaren 15ean** hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko irailaren 7an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.